

AUZOLAN



MUNDUKO
HIRITARROK



Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia



ALBOAN

Bideoaren laburpena

Neska gazte batek berez eta nahita parte hartzen du pertsona-talde batekin batera etxe bat eraikitzen. Hori da bideoaren edukia lotzen eta egituratzen duen hari. Bertan zenbait unetan (azoka, mundura irten, parte hartu, proposamenak, gauzak aldatu egiten dira) errealitatearen analisia eta berau aldatzeko proposamen bat aurkezten zaigu. Hegoaldean eta Iparraldean parte hartzeko zenbait esperientzia otu egiten dira, gure mundua eraikitzen parte hartzeko herritar gisa pertsona guztioi dagokigun erantzukizuna planteatzeko. Parte hartzea askatasunez aukeratzen da. Aukera pertsona bakoitzak egiten du.

Aurkezpena

Ondoren aurkezten den materialak **“Auzolan”** bideoan dauden edukiak lantzeko pentsaturiko jarduera-sorta du.

Jarduera hauetan, parte hartzeko metodologiaren bidez, herritartasunaren eta parte hartzearen gaiari heltzen zaio. Horrela bideoaren edukiari etekin handiagoa ateratzeko aukera dago.

Proposamen hau 12tik 18 urterainoko 20 eta 30 pertsona bitarteko taldeetan erabiltzeko diseinatu da. Material irekia delako, bai irakaskuntza formalean eta bai informalean erabiltzeko aukera dago.

Helburuak

- Gizarteko helburuak lortzeko parte hartzearen eta antolatzearen garrantziaz gogoeta egitea.
- Herritar gisa parte hartzeko eta norberaren eta taldearen erantzukizuna onartzeko dauden aukerak ezagutu eta balioztatzea.
- Taldeko lanean entzuteko, laguntzeko eta parte hartzeko jarrera izatea.
- Bizitzako esparru guztietan parte hartzea (familian, eskolan, berdinaren taldean, auzoan, herrian...) errealitatea aldatzeko konpromisoa onartuz.

Edukiak

Bideoan eta proposatutako jardueretan dauden edukiak honako hauek dira:

Kontzeptuzkoak:

- Helburu komunak lortzeko bide gisa antolatutako pertsona askok parte hartzea.
- Parte hartzeko hurbileko eta urruneko esparruak (familia, auzoa, eskola, herria, mundua...).
- Mundua aldatzeko dauden era, bide eta parte hartzeko aukerak.
- Parte hartzea, bizi garen munduan eragile protagonista bihurtzeko era gisa.

Prozedurazkoak:

- Aldez aurreko ideien identifikazio-estrategiak.
- Gogoeta, elkarrizketa eta eztabaida.
- Informazioa bildu, maneiatu, tratatu eta interpretatzea.
- Testu-iruzkina.
- Talde-lanak jendaurrean aurkeztea.

Jarrerazkoak:

- Arretaz eta errespetuz entzutea.
- Aktiboki parte hartzeko eta laguntzeko jarrera.
- Parte hartzeko plataformak eta esperientziak ezagutzeko interesa.
- Gizarteko gaitan parte hartzeko motibazioa.
- Herritar gisa parte hartzeko norberaren erantzukizunak onartzea.

Metodologia

Talde-lanaren aldeko eta entzutea zein pertsona guztiek parte hartzea laguntzen duten dinamikien aldeko metodologia aktiboa proposatzen da. Prozedura-aniztasuna dela eta, jarduera-proposamen hau material bizi eta motibazioa da erabiltzaileentzat eta hezitzaileek ere erraz balia dezakete.

Erabiltzeko une egokiaren arabera jarduerak hiru talde handitan banatuta daude: Lehen taldean honakoak aurkezten dira: proiektatu baino lehen aldez aurreko zenbait kontzeptu eta ideia, bideoa ikusteko gidoia (ikusi ahala osatzeko) eta, azkenik, bideoa ikustea amaitu ondoren egiteko zenbait jarduera.

Ebaluazioa

Materialaren eragina eta adierazitako helburuak zein mailataraino lortu diren balioztatzeko, ondoren taldea ebaluatzean kontuan izan beharreko irizpide nagusien behaketa-erregistroa aurkezten da.

Behaketa-gidoia	1	2	3	4	5
Landutako edukien ulertze-maila.					
Talde-lanetan parte hartzearen maila					
Talde-laneko arau eta erregeletara moldatzea.					
Beste iritzi eta ideia batzuk jaso, errespetatu eta onartzeko gaitasuna.					
Ekimenen maiztasuna eztabaidatan eta jardueretan.					
Sormena eta sintesi-ahalmena eztabaida eta ados jartzeetan.					
Talde-lanean gogoeta-jarrera eta jarrera positiboaren aldekoa.					
Herritar gisa norberaren erantzukizuna onartzeko gaitasuna.					
Gizartean ekintzarako eta parte hartzeko jarrera.					

Ebaluazioak eskueran daude honako helbidean: <http://www.alboan.org>

Gizarteko parte-hartzearen gaia lantzeko ALBOAN-en hezkuntza-proposamena beste baliabide batzuekin osatzen da. Hauek dira baliabideak:

- girotzeko posterrak
- proposamen didaktikoak dituzten paper-zorroak,
- gynkhana jokoa,
- ikastetxe arteko proposamena,
- aholkularitza eta trebakuntza ALBOANen anaitasuneko hezkuntza-taldearen aldetik.

ALBOANen web orrian irakasleentzat eta gazteentzat bideoari eta jarduera-proposamenari buruzko ebaluaziorako galdera-sorta ematen da. ALBOANen Anaitasuneko Hezkuntza-taldearentzat oso garrantzitsua eta baliotsua da zuen irizki eta balioespen guztien berri izatea; izan ere, hezkuntza-materiala lantzen jarraitzeko funtsezkotzat jotzen baititugu. Beraz, zuen laguntza izango dugulakoan gaude.


- 2001-2002 ikasturtea Eskubideak eta betebeharrak. Eskubideak eta erantzukizunak.
- 2002-2003 ikasturtea Gizartean parte-hartzea.
- 2003-2004 ikasturtea Gatazkak konpontzea.

Informazio gehiago nahi izanez gero

Aita Lojendio kalea, 2 - 2. • 48008 **Bilbo**
alboanbi@alboan.org • 944 153 592

Bergamín kalea, 32 • 31004 **Iruñea**
alboanna@alboan.org • 948 231 302

www.alboan.org



MUNDUKO
HIRITARROK

Bideoa proiektatu baino lehen

Ideia-eranskailua

Helburuak:

- Parte-hartzeaz aldez aurreko ideiak atzematea.
- Lana taldean landu eta antolatzea.
- Entzuteko eta errespetuzko jarreran eztabaidatzea eta elkarrekin hitz egitea.

Garapena:

Talde handia talde txikiagoetan zatituko da ideia-jasa sorrarazteko. Abiapuntu gisa planteatzen den galdera hau da: *Zer da parte-hartzea?* Pertsona bakoitzak itsasten diren ohar-orrien sorta izango du eta bertan galderak sorrarazten dizkion ideietako bakoitza idatziko du. Taldetan bilduta, beren ekarpenak adostu egingo dituzte, eta kartoi mehezko orri batean ideia guztiak antolatzen saiatuko dira. Ideia bera duten orriak alde batera utz daitezke eta gainerakoan era estrategikoan eta logikoan koka daitezke. Azkenean, orrietan idatzitako ideiak eduki eta batzen dituen parte-hartzeari buruzko definizioa prestatuko dute. Gero ados jartzen saiatuko dira, talde bakoitzak besteari bere definizioa eta hori lantzeko izan duten prozesua azalduz. Definizioa osa dezakete parte hartzeaz ezagutzen diren proposamenekin.

Materiala: Itsasteko ohar-orriak, errotuladoreak eta kartoi mehezko orriak.

Iraupena: 30 minutu.

Iradokizunak: Definizioa prestatzen parte-hartzea nolakoa izan den ere analiza daiteke. Zailtasunak, aukera, etab. Adieraz ditzakete, eta horrekin hasierako definizioa osa dezakete.



Eta zuri zer iruditzen zaizu?


Helburuak:

- Parte hartzeaz hainbat ideia eta iritzi jasotzea.
- Taldeko informazioa analizatu eta sistematizatzea.
- Jasotako eta antolatutako informaziotik abiatuta ondorioak ateratzeko eta jendaurrean aurkezteko gaitasuna garatzea.

Garapena:

Taldea, parte hartzeaz inkesta labur bat diseinatuko da. Jardueraren helburua inkesta inguruko pertsonekin erabiltzea da, gizarteko parte-hartzeaz beste pertsona batzuek zer iritzi duten jakiteko. Inkesta diseinatzeko aurreko jardueran sortutako ideiak erabil ditzakete. Nola edo hala inkestan jasotzeko interesgarriak izan daitezkeen beste alderdi batzuk hauek dira: parte hartzeko bideak, parte hartzeko orduan jendeak duen motibazioa, jendeak zenbat parte hartzen duen, zertan, parte-hartzeaz zer iritzi duen... Inkesta prestatu ondoren, pertsona bakoitzak bostekin erabiliko du. Jasotako erantzunak taldetan aztertu eta sistematizatu egingo dira. Analizatu ondoren, ateratako ondorioak grafiko, eskema edo egokitutako jotzen diren tresnak erabilia aurkeztuko dira.

Iraupena: 2 ordu inkesta diseinatzeko, erabiltzeko eta ondorioak analizatu eta aurkezteko.



Denak asmatu!!!

Helburuak:

- Parte-hartzeaz alde zureko ideiak atzematea.
- Iritzi bati buruz jarrera argi eta garbi izatea.
- Norbere iritzia edo jarrera defendatzea.
- Elkarrizketarako eta beste pertsonen iritziekiko jarrera irekia izatea.

Garapena:

Parte-hartzeaz kiniela osatzea proposatzen da. Kiniela berezi honetako esaldi bakoitzaren alde edo kontra egitea eskatzen da.

1 - Ados nago. 2 – Ez nago ados. X – Gaiaz jarrera ez dut garbi.

Garrantzitsua da X jarrera erabakitzean benetan zalantza dagoenean baino ez dela erabili behar jakinaraztea. Interesgarriena 1erako edo 2rako joera izatea da.

Ados jartzeko bi prozedura erabil daitezke:

1. Taldetan bildu eta kiniela bakoitzaren emaitzez hitz egingo dute, planteatutako baieztapen bakoitzak iradokitzen dituen jarrerei buruz eztabaidatuz.
2. *Balore-barometroaren* teknika erabiliko da. “X” ordezkatzeko duen lerroa marrazten da zoruan. Lerroaren ezkerreko aldeak “1” zenbakiaz markatutako iritzia ordezkatzeko ditu, eta eskuineko aldeak “2” zenbakiaz ordezkatzekoak. Dinamizatzaileak ahotsez ozen esaten du baieztapen bakoitza. Pertsona bakoitza lerroaren alde batean edo bestean kokatzen da, kinielan erantzun duenaren arabera. Pertsona guztiak beren lekuan ipini direnean, bi aldeetan daudenen arteko elkarrizketari ekiten zaio. Prozedura hau errepikatu egiten da baieztapen guztiak eztabaidatu diren arte.

Materiala: Kiniela **Iraupena:** 45 minutu.

Kiniela	1	x	2
Parte hartuta pertsona guztiok irabazten dugu			
Pertsona guztiok dugu gure bizitzako unerik batean boluntario izateko betebeharrak			
Parte hartzeak konpromisozko bizitzeko era koherentea eskatzen du			
Gaur egun gizartearen dauden erakundeek erabaki politikoetan ezin dute eraginik izan			
Boluntario izateko edo parte hartzeko esperientziak dira urruneko eta hurbileko beste mundu batzuk aurkitzeko era onenak			
Pertsona batek egiten ez duen ekarpena beste inork egingo du egin			
Tartean sartu eta parte hartzeak beti askeago egiten gaitu			
Lekuko ingurunean ekintzak, oso txikia baldin bada ere, beti du eragina mundu osoan			
Pertsona batek bakarrik ezin du ezer aldatu; pertsona guztien artean, ordea, bai			
Egunetik egunera jende gehiago dago gizartearen parte hartzeko prest			
Pertsona askok ez dute parte hartzen, nola parte hartu ez dakitelako			
Parte hartzen dugunean, beti aldatzen dugu errealitatea			



MUNDUKO
HIRITARROK

Bideoa proiektatzen den bitartean

Zine-emanaldia

Helburuak:

- Bideoa proiektatzen denean arretaz ikustea.
- Gizartean elkarrekintzarako dauden erak ikastea.
- Herritar gisa bakoitzak dugun erantzukizunaz kontzientzia hartzea.
- Gizartean parte hartzeak, antolatzeak eta elkarlanean aritzeak duen garrantzia ulertzea.

Garapena:

Proiektzioa hasi baino lehen ikasleei bideoa ikusteko gidoia arretaz irakurtzea eskatzen da. Aztertu ondoren, proiektatu egiten da. Bitartean zuriuneak bete eta egiten diren galderari erantzun egin beharko diete.

Materiala: Ikusteko gidoia.

Iraupena: 30 minutu.


Bideoa ikusteko gidoia

Bideoko hitz garrantzitsuak eta ideia nagusiak

-
-
-

Parte hartzeko aipatzen diren bide eta proposamenak

-
-
-



Osatu beharreko esaldiak

- Boluntario-esperientziak aukera ona dira honetarako:

.....

- Horrelako egoeretan ikusten da herritartasun hitzaren benetako esanahia. Hilda ez dago konforme,

.....

Honetarako premia du:

- Denek parte hartzea lortzeko, Kristinak hau egin behar du:

..... Elkartuta baino ez dute lortuko honetarako behar den indarra:

.....

- Gure hirietan gertatzen ari diren aldaketek honakoa eskatzen dute:

Geldirik egon gaitezke

- Jendeak parte hartzen duen gizartea honelakoa da:

Gogoeta eta eztabaida egin ondoren

- Gizarteak honako honen arabera egiten du aurrera:

Gizarte, sindikatu eta ikasleen mugimenduek



MUNDUKO
HIRITARROK

Bideoa proiektatu ondoren

Orain, gure protagonismoa!

Helburuak:

- Proiektatu ondoren izandako inpresioak jasotzea.
- Bideoaren edukiko alderdi esanguratsuenak hartu eta ateratako ondorioak eta sentrazioak partekatzea.
- Gizartean parte hartzeko bide eta kanalak aurkitzea.
- Iparraldean eta hegoaldean parte hartzeko erak konparatzea.

Garapena:

Bideoa proiektatu ondoren eta bideoa ikusteko gidoia osatu ondoren, taldeka bilduko dira hartutako datuez eta proiektzioan jasotako inpresioez hitz egiteko. Beste taldeei aurkeztu ondoren, iradokitzen diren galderekin eztabaida hasiko da.

Materiala: Taldean bat etortzeko galderak.

Iraupena: 50 minutu.

Taldean bat etortzeko galderak

- Bideoan zer egin zaizu deigarrien? Zein irudi edo eszena izan dira gehien harritu edo eragin dizutenak?
- Bideoak zein mezu jakinarazi nahi du? Zertara animatzen gaitu?
- Ikusitako eszenetan, zein dira zuentzat hurbilenak?
- Josune, Aloña, Hilda, Kristina, Jon, William... dira beren esperientziaren berri ematen dutenak. Bakoitzak nola parte hartzen du? Herritarrek parte hartzea nola sustatzen dute?
- Iparraldean eta Hegoaldean erakusten diren parte hartzeko eretan zer diferentzia eta antz ikusten dituzue?
- Herritar gisa eta bizi garen munduan benetan protagonista izateko, parte-hartzeaz zein jarrera izan behar genukeela uste duzue?

Gidoia zatikatuz

Helburuak:

- Bideoko eduki indartsuez gogoeta egin eta sakontzea.
- Herriko eta maila globaleko parte-hartzea analizatzea.
- Parte-hartzeaz konpromisozko jarrera izatea.

Garapena:

Gidoiko zati batzuk analizatuta bideoaren edukian apur bat gehiago sakontzea proposatzen da. Taldeka lan egin daiteke eta bideoan ikusitakoa eta eztabaidatutakoaren ondorioak zenbait formatutan aurkez daitezke: irratsaio, telebista-programa, komunikabideetako izenburu, poesia, kantu eta abarren bidez.

Beste era bat ondoko esaldiak horman ipintzea da, inguruan zatar-papera ipinita. Pertsona bakoitzak errotuladorea izango du eta esaldi bakoitzaren inguruan iruzkina, galdera edota zalantza idatzi beharko du. Gero talde bakoitzak esaldiaren inguruan dagoena analizatu egingo du eta taldeko gainerakoei ondorioak edo gutxieneko adostasunak aurkezten saiatuko da.

Materiala: Elkarrizketarako esaldiak. **Iraupena:** 50 minutu.

Elkarrizketarako esaldiak

Gidoia zatikatu egingo dugu. Taldean komentatzeko zati batzuk proposatzen dizkizuegu. Entzundakoan edo irakurritakoan, zer ulertzen duzue? Adierazten dutenarekin ados al zaudete?

- Caracasek gure etorkizuna dirudi: arraza-nahasketa, gero eta desberdintasun ekonomiko handiagoak, biztanleriaren zati handi bat baztertuta dago.
- Venezuelako atsotitz baten arabera, hildako arrainek soilik jarraitzen dute ur-lasterraren noranzkoa. Gizartea alda dezakegu edo berak gu molda gaitzan utzi, ispiluan begiratu edo leihora irten.
- Begiratu munduari. Jendez egina dago. Eraikin bakoitza, joko bakoitza, arau bakoitza norbaitek egina da. Zu bezalako norbaitek.
- Bideo hau amaitutakoan, zure eguneroko monotoniagatik marmarrean jarrai dezakezu, merkatuak jartzen dizun morroi-erritmoan. Bulego handietan txalotu egingo dute zure jarrera, euren estatistiketan zenbaki bat gehiago izango zara. Horren orde, kalera irten zaitezke, begiratu, inguruan duzunari begiak ireki, informazio jaso, parte hartzeko guneak bilatu, zure munduan protagonista izan, mundua eraiki, forma eman. Aukera egitea zeure esku dago.

Eta zuk zer aukeratzen duzu?

Jakinaraz ezazu!

Helburuak:

- Gizartean parte hartzeak duen garrantziaz ohartu eta gogoeta egitea.
- Beste pertsona batzuk parte hartzera animatu eta gonbidatzea.
- Taldekako lanean jarrera laguntzailea eta aktiboa izatea.
- Hainbat esparrutan parte hartzeko bideak aurkeztu eta horietaz gogoeta egitea.
- Sormena garatzea.


Garapena:

Egunero telebistan, irratian, enpresan, kalean publizitate-mezuak daude eta ezinbestekoak eta bikainak direla dioten produktuak eta zerbitzuak iragartzen dira. Zergatik ez gauza bera egin parte-hartzearekin? Garrantzitsua dela eta benetan premiazkoa dela iruditzen baldin bazaigu, zergatik ez parte hartzera gonbidatu? Proposamena publizitate-iragarkia diseinatzea da, jendeak familian, auzoan, eskolan, herrian edo munduan parte har dezan eta horretarako dauden erak aurkeztu eta jakinarazteko. Diseinatzeko taldetan bana daitezke eta bakoitza formatu eta euskarri (papera, audioa, ikus-entzunezkoa...) desberdineko iragarkia egiteaz arduratu daitezke. Prestatu ondoren, iragarkia jakinarazteko, argitaratzeko edo zenbait espaziotan sartzeko bideak edo erak bila ditzakete.

Materiala: Iragarkia egiteko beharrezkotzat jotzen dena.

Iraupena: Ordubete.

Iradokizunak: Iragarkiak bideoan graba daitezke eta gero ikastetxeko gainerakoek, taldeak, gurasoek eta abarrek ikusteko proiektatu egin daitezke.



Irten, ezagutu eta parte hartu!!!

Helburuak:

- Ingurune hurbileko parte hartzeko egiazko bide edo plataformak ezagutzea.
- Inguruneko pertsona edo taldeek gizartean parte hartzeko duten esperientzien berri izatea.

Garapena:

Seguru esan dezakegu pertsona bakoitzaren inguruan gizartean parte hartzeko plataformak badirela: hainbat eratako elkarteak, GKEak... Eta seguru gaude, bideoan ikusten den bezala, elkarte horietan oso gertu boluntario moduan parte hartuz errealitatea aldatzen ari diren pertsonak ere badirela. Espazio horiek eta bertan lanean ari direnen esperientziaren berri izateak guk parte hartzeko aukerak ireki, zabaltu eta handitu egiten dituzte. Proposamena ikerlana egitea da, gure ingurunean parte hartzeko zein plataforma edo sare dauden eta bakoitza zertan ari den jakiteko. Ikerketa taldeka egin daiteke, lurraldea sektoretan banatuta eta talde bakoitzak horietako bat ikertzen saiatuz. Talde handian edo ikastetxean azaltzeko parte-hartzean esperientzia interesgarria duela iruditzen den pertsonaren bat gapidatu daiteke.

Materiala: El que se considere necesario para elaborar el anuncio.

Iraupena: Ordubete.

Iradokizunak: Jarduera hainbat saiotan egin daiteke. Lehengo saioak taldeak antolatzeko eta ikerketa egiteko izan daitezke, eta azken saioa bildutako datuak ados jartzeko eta esperientziak aurkezteko izan daiteke.



Alez ale...

Helburuak:

- Proiektatu ondoren izandako inpresioak jasotzea.
- Bideoaren edukiko alderdi esanguratsuenak hartu eta ateratako ondorioak eta sentrazioak partekatzea.
- Gizartean parte hartzeko bide eta kanalak aurkitzea.
- Iparraldean eta hegoaldean parte hartzeko erak konparatzea.

Garapena:

Iñaki Sánchez-ek idatzitako poesia eta bideoaren gidoiaren zati bat ematen zaie. Galdera batzuetan oinarrituta bietan azaltzen denaz gogoeta egin dezaten eskatuko zaie. Analisi honen ondoren errealitate horri aurre egitearren parte hartzeko bideak ikertzea eskatuko zaie.

Parte hartzeko zenbait era, proposamen eta adibide Interneten ikertzea ere eska dakieke, erreferentzia moduan bideoan azaltzen direnak eta jakin ditzaketen beste batzuk hartuta. Ikerketarekin azalpen txiki bat eman dezakete parte-hartzeaz, Interneten, beren auzoan eta abarretan aurkitu dituzten esaldiak, ekintzak eta egoerak erabiliz.

Materiala: Ados jartzeko testua eta galderak, Internet, aldizkariak, kartoi meheko orriak eta errotuladoreak.

Iraupena: 2 saio.



Testua

Harea-aleak elkartuz, hondartza
Mahatsez beteriko mahastietan, ardo goxoa
Non ikusi duk haritz bakarreko hariztirik?

Zeruan ere izarrek dir-dir dagite, aingerutxoen
Ibilbide magikoak antolatuz.
Jesus taldeka ibiltzen zen, eta hor goaian ere
Jende mordera omen.

Matematikan zenbakiak tropelka datozkigu,
Eta geometrian aldeek elkar maite dute,
Ez baitago alde bakarreko poligonorik.

Zentzu osoko perpausa izatekotan berba asko beharko,
Eta poetak hitz askotaz baliatzen dira
Musak konkistatu nahian

Txoriak ere multzoka, aireari adarra joz
Ardiak elkarrekin doaz, otsoari aurre egiteko.
Beste guztiekin batera, zu ere zuago.

Iñaki Sánchez



Bideoan azaltzen zen testua hau zen:

Proposamenak egiteko ordua iritsi da. Jendeak erabakiak hartzean parte hartzen duen neurrian egiten du aurrera gizarteak. Gizarte-, sindikatu-, ikasle-... mugimenduak pertsoneri boterea ematen dieten erremintak dira.

Gaur egun badaude parte hartzeko bideak, pertsona bakoitzaren eginahalari zentzua ematen diotenak. Auzo-mailako elkarteak, tokian tokiko mugimenduak, herrialde mailakoak eta mundu mailakoak daude. Teknologia berriek birtualki elkartzea eta ideiak eta proposamenak batzea ahalbidetzen dute gainera.

Proposamenak baliagarri izango dira, baldin eta modu baketsuan eta elkarrizketa-giroan aurkezten badira. Norbere ziurtasuna edo zenbakizko gehiengoa ez dira irizpide bat inposatzeko arrazoiak.

ETA...

Venezuelako atsotitz baten arabera, hildako arrainek soilik jarraitzen diote ur-korrontearen noranzkoari. Gure esku dago korronteari jarraitzea edo korrontez kontra joatea, irekitako bideari jarraitzea edo berria irekitzea. Gizartea alda dezakegu edo berak gu molda gaitzan utzi, ispiluan begiratu edo leihora irten.

Begiratu munduari. Jendez egina dago. Eraikin bakoitza, joko bakoitza, arau bakoitza norbaitek egina da. Zu bezalako norbaitek; eskolan, auzoan, hirian, osa dezakegun bezalako pertsona-taldeek; daudenek eta gizarte berria proposatzen ari direnek.

Munduan parte hartu edo ez norbere erabakia da. Bideo hau amaitzean, zure eguneroko monotoniagatik marmarrean jarrai dezakezu, merkatuak jartzen dizun morroi-erritmoan. Bulego handietan txalotu egingo dute zure jarrera, euren estatistiketan zenbaki bat gehiago izango zara. Horren orde, kalera irten zaitezke, begiratu, inguruan duzunari begiak ireki, informazioa jaso, parte hartzeko guneak bilatu, zure munduan protagonista izan, mundua eraiki, forma eman.

Aukera egitea zeure esku dago.

Eztabaidarako galderak

- Zer da testuak azaldu nahi diguna? Eta bideoak?
- Testuen arabera eta zuen arabera, zein alde positibo eta negatibo ditu bestekin lan egiteak?
- Parte hartzeko zein bide ezagutzen duzu?
- Zein estilotako mundua nahi dugu guk?
- Zer egin dezakegu eta egin behar dugu lortzeko?
- Besteen ondoan harea-alea izan nahi al dugu?